


LEZOKO HERRIA URRUÑAKO IKASTOLAREN ALDE

Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak anai-arrebok gara, enbor bereko adarrak, eta denok ahalegintzen gara zuhaitza ihar ez dadin. Ama Euskal Herria maite dugu eta gure hizkuntza izugarri preziatzen, ederki baitakigu euskarak euskaldun egiten gaituela, euskarak Herri egiten gaituela.

Bidea oztopoz betea daukagu, etsaiak ezker eta eskubiko zuhaitzak mozten baitizki-gu bidea eragotzi nahian. Baina hor gaude euskaldunok, elkarri lagunduz, eragozpen horiek gainditzeko prest. 1997ko Mendekozteetan, Lezoko jai egitarauaren barruan eta bertako oroitzene AEK euskaltegiak antolaturik, Zuberoako Eguna izan zen. Hor-tarako dantzariak, kantariak, zuberotar mozkinak,... ekarri ziren, eta honen truke lor-tuako dirua Sohütako Ikastolarako izan zen. Honekin batera, Lezoko Udal Batzak 100.000 pezetako diru laguntza onartu zuen.

Aurten gauza bera gertatu zaigu, baina orain eraiki nahi den ikastola ez dago Zube-roan, Lapurdin baizik, Urruña herrian hain zuzen. Bertako auzapezak (Poulou izeneko

1.000 harri behar ditugu Urruñan Ikastola eraikitzeko



Hauxe da ikastolaren proiektua. Momentu honetan ikastola eraikitzen ari da.

alkate frantsesak) gezurra eta txantaia erabiliz, ikastolaren proiektua zapuztu nahi du. Baina Urruñako euskaldunak ikastolaren beharrea daude, eta aurrera egin dute, aurrera, alkate maltzuraren eraso guztien gainera. Hortarako kanpaina bat antolatu dute Euskal Herri osoan diru laguntza eskatuz. 10.000 pezetaz harri bat eros daiteke, eta honela 1.000 harri salduz gero finantziatu ahal izango da ikastolaren eraikuntza.

Udalek, erakundeek, euskaldun jendeek,... laguntzeari ekin diote. Denon artean ikastola altxatuko dugu. Lezoko Udal Batzak, Sohütako ikastolaren alde egin zuen bezalaxe, 100.000 pezetako diru laguntza luzatu die eta 1998ko Mendekozteetan, maiatzaren 31ko igandean, AEK-k antolaturiko Lapurdiko Eguna gauzatu zen. Eguerdi aldean Urruñatik etorritako laborariek (baseritarrek) bertako mozkinak saldu zituzten: gaznak, mamiak,... ikastolaren aldeko produktuak eta abar. Beraiekin batera margolari urruñar batek bere koadroak saldu zituen.

Arratsaldeko 7etan segida izan zen. Lehendabizikoz Urruñako ikastolako andereño eta guraso den Bernadette Garrok aurkezpena egin zuen eta ondoren ikastolako haurrek "Ikastola poxpola bat" eta bestelako abestiak kantatu zituzten, ahots eziz eta bihotz piztuaz. Ondoren Urruña-Donibane Lohizuneko Trikitrixa Eskolako neska-mutilek jarraitu zuten eta bukatzeko Kiki Bordea kantari eta musikari arbonarrak Lapurdi aldeko kantuz gozatu gintuen.

Era guztietako euskal dantzen artean, lapurtar erako mutxikoak jo zituztenean, ikusi ahal izan genuen gure artean bazirela urruñar batzuk gurekin batera eguna pasatzen propio etorriak zirenak. Pika, jauzi, erdizka eta aitzina! Iaz Sohüta, aurten Urruña, geurtz Donibane Garazi agian! Harriz harri, herriz herri, euskaldunok biharko Euskal Herri aske eta euskalduna eraikitzen ari gara. Eta hortan irautea etorkizuna erabaztea da!

JOSEBA ZABARREKO